



Erabiltzailearen gida

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Datu- basea

1. Sarrera

Ondorengo ataletan datu-basearen fitxategiko edukiaren azalpen bat egiten da. Funtsean, fitxategiaren informazioa 2 artxibotan dator, bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde eta Baltzu Publikoen aurrekontu orokorren datuak, aurrekontuko ekitaldi zehatz batentzakoak, hain zuzen ere, jasotzen dira:

- Datuak
- Entitateak

Fitxategi hau 'CSV' formatuan dago.

2. Taulen ezaugarriak

2.1 Datuak

Erakunde eta Baltzu Publikoen aurrekontuko datuak jasotzen ditu:

- Entitate bakoitzerako aurrekontuek osatzen dituzten txosten bakoitzean banatzen da informazioa, eta entitateak sekzioak baditu, sekzio bakoitzerako.
- Txosten bakoitza zatituta dago, adibidez, kapital aurrekontua, inbertsioak eta finantzazioa izeneko ataletan; edo ustiapen aurrekontua, gastuak eta diru-sarrerak ataletan; eta abar.
- Txostenaren zati bakoitzerako honako atal hauen zenbatekoak jaso daitezke:
 - Txosten zati bakoitza osatzen duten epigrafeak.
 - Epigrafe bakoitza osatzen duten azpiepigrafeak, hura azpiepigrafeetan banatuta badago.
 - Epigrafe edo azpiepigrafea osatzen duten kontuak, epigrafea edo azpiepigrafea, dagokiona, kontuetan banatuta badago.
 - Kontu bakoitzaren azpikontuak, kontua azpikontuetan banakatuta badago.

- Kontu edo azpikontu bakoitzari dagozkion partidak, kontuak edo azpikontuak partidak baditu.

Eremua	Azalpena
Ekitaldia	Aurrekontu-urtea
Entitatearen kodea	Entitatearen kodea
Sekzioaren kodea	Sekzioaren kodea. Hutsik sekziorik ez badauka.
Txostena	KA Kapital Aurrekontua baldin bada UA Ustiapen Aurrekontua FT Finantzaketa Taula AB Aurreikusitako Balantzea GI Aurreikusitako Galdu-Irabazien Kontua
Zatia	Txostenaren zatia adierazten du. Kapital Aurrekonturako: IN Inbertsioak FI Finantziazioa Ustiapen Aurrekonturako: GA Gastuak DS Diru-sarrerak Aurreikusitako Balantzerako: AK Aktibo PA Pasibo Finantzaketa Taularako: AP Aplikazioak JA Jatorriak KZ Kapital zirkulatzaillearen aldaketa Aurreikusitako Galdu-Irabazien Konturako: ZO Zorra HA Hartzekoa
Errenkada mota	Izan daiteke: EPIGRAFE, AZPIEPIGRAFE, KONTU, AZPIKONTU, PARTIDA.
Epigrafe	Epigrafearen kodea
Azpiepigrafe	Azpiepigrafearen kodea; hutsik errenkadaren zenbatekoa Epigrafeari badagokio.
Kontua	Kontuaren kodea; hutsik errenkadaren zenbatekoa Epigrafe ala Azpiepigrafeari badagokio.
Azpikontuaren kodea	Azpikontuaren kodea; hutsik zenbatekoa Epigrafe, Azpiepigrafe ala Kontuari edo, kontuak azpikonturik ez badu, partida bati badagokio.
Partidaren kodea	Partidaren kodea; hutsik zenbatekoa partidari ez badagokio.
Azalpena	Errenkadari dagokionaren azalpena; Epigrafe bada, epigrafearen azalpena; partida bada, partidaren azalpena; eta abar.
Zenbatekoa	Zenbatekoa

2.2 Entitateak

Erakunde eta baltzu publiko guztien kodea eta izena hartzen ditu, eta baita horien sekzioenak ere.

Eremua	Azalpena
Entitatearen kodea	3 digitu.
Sekzioaren kodea	2 digitu.
Izena	Entitatea edo sekzioaren izena.